

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTZIEGOKO UDALA

Behin betiko onartzea 2/2016 kreditu gehigarriaren espedientea

Bat etorri 3/2004 Foru Arauak, toki erakundeen aurrekontuenak, 34.3 eta 15. artikuluetan xedatutakoarekin, eta inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez 2/2016 kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onarpenera eman zion erabakiaren aurka, espediente hori behin betiko onartuta geratzen da, honela:

PARTIDA	KONTZEPTUA	EUROAK
320.622.001	Hobekuntzak Lantziegoko ikastolan	30.067,25
342.622.001	Eraberritzea udal igerilekuetan	6592,39
912.481.003	EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarte	55,00
Guztira		36.714,64

Jarraian zehazten diren baliabideen kontura finantzatu da espediente hori:

Handitu beharreko diru sarreren partidak edo erabiliko den diruzaintzako gerakina:

PARTIDA	KONTZEPTUA	EUROAK
71002	Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza, Lantziegoko ikastolako hobekuntza obrak egiteko	18.040,35
870.01	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako	18.674,29
Guztira		36.714,64

Erabaki honen aurka, zeinak behin betiko onartzen baitu udal honen aurrekontu orokorra, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Lantziego, 2016ko uztailaren 27a

Alkatea

GORKA MAULEÓN OLALDE